



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ALKIZA Udal-Info 3.0.

2013ko urriaren 30

KONTU ANITZAK

OSTATU

Dagoeneko gehienek jakingo duzuen eran, gaur egun Ostatuko esleipena duen taldean egokitzapen batzuk egin dituzte, Udalaren oniritziarekin eta esleipena egin zitzaieneko baldintza eta betebeharrak mantenduz.

Hori dela eta, Azarotik aurrera Ainhoa, Andoni, Carol eta Ibón alde batera geratuko dira eta Diego-k eta Raquel-ek jarraituko dute Ostatuko zerbitzua ematen, lan taldea osatzeko hartu duten sukaldari baten laguntzaz.

Oraingoz uzten dutenei, egindako lanagatik eskerrak ematen diegu eta geratzen direnei berriz, indarberrituta jarraitu dezatela opa diegu.

BETELANA SAKAMIDRA AUZOAN

AHT-ko lanen ondorioz, Sakamidra auzoan betelan bat egingo da. Anoeta aldean zulatzen hasi diren tunelen ahoetatik aterako duten harri eta lur zati bat hona ekarriko dute. Beste zati haundiena Adunara (Miravalles minak) eta Apattara (poligonoaren 2. fasea) eramango dute.

Soluzio hau, joan zen urteko abendutik hasita, Anoeta eta Hernialdeko udaletxeekin batera, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Trenbide Sarea-ren (ETS, obraren arduraduna) ordezkariekin izandako negoziazio prozesu luze eta korapilatsu baten ondorioz lortu da. Obra bera geratu ezean, herritar guztiongan lanek izango duten eragina ahal den neurrian gutxitzen saiatu gara hiru udalen aldetik. Bilera guzti horien ondoren, Alkizan egin behar diren lanek Jaurlaritzako eta Udalaren baimenak dituzte, promotoreek lurjabeekin tratua lotu dituzte eta Udalak jardueragatik jaso behar duen tasa ezarri du.

Lanak hasi aurretik, auzoko bizilagun guztiekin hitz egin dugu. Lanak egingo duten enpresakoekin ere bilera bat antolatu genuen, bizilagunei behar besteko azalpenak eta argibideak zuzen zuzenean beraiek eman diezaieten.

Betelana auzoko sarreran dagoen sakongune baten beheko zatian egingo da eta gaur egun auzora daraman bidearen zati bat ere hartuko du. Beraz, bide horren puska bat desbideratu eta berria egin behar dute betelanarekin hasi orduko. Erabiliko duten bidearen beste zatian pare bat zabalgunere irekiko dituzte bi ibilgailu batera egokitzen direnerako. Gainera, Errekaldeko bidegurutzean bertan sarrera zabalduko dute, kamioiak errazago igaro ahal izateko.

Anoeta aldetik ibiltzeko ohitura daukagun beste guztioi ere eragingo digu kamioien joan etorria. Dagoeneko Anoetako sarreran gertatzen zaigun eran. Baina hau sahiestu ezina zen, bestela ere kamioiak atzera eta aurrera ibili behar zirelako. Horrela, gutxienez, Anoeta erditik zeharkatzen egingo luketen traba eta ataskoa arinduko da. Bestalde, errepidean kamioi arruntak besterik ez direla ibiliko agindu digute (ez obra barruan erabiltzen dituzten haundi horiek –*bañerak* direlakoak).

KULTUR ONDAREA BABESTEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA

Alkizak duen ondare historikoa eta arkeologikoa zaintze aldera, hainbat elementu duten egoera kaxkarra hobetzeko eta gerora begira babesteko, proiektu bat prestatu dugu eta Kultur Saileko dirulaguntza deialdi batera aurkeztuko dugu. Oraingoan lantzen ari garenak Itxuraineko tumulua, Santa Kruz ermitako arrastoak eta antzeko beste batzuk dira. Dagoeneko inplikatuekin hitzegin dugu eta aukera edo baimen mota ezberdinak aztertzen ari gara.

Helburua da arrastoetatik ikusi daitekena ageriago utzi, gainean eta inguruan dagoen begetazioa garbitu, behar den kasuetan hesi batekin babestu eta zer diren esanez informazioa emango duten panel txiki batzuk jartzea.

LAN KONTRATUAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntza baten bidez langileak kontratatzeke eskeini zuen aukerari erantzuez, Udalak bere eskaera aurkeztu zuen eta bi kontratu egiteko finantziarioa lortu du. Lehenengoa, herri langilearekin mantenu eta konpoketa lanak egiteko, Urriaren hasieratik martxan dago eta bestea, Interpretazio Zentroa irekitzeko eta ingurumen teknikariarekin batera beste aktibitate eta proiektu osagarriak aurrera eramateko, azaroaren 15erako gauzatuko da.

Diruz xumeak dira eta bost hilabeteetarako besterik ez, baina gaur eguneko egoeran ez zitzaigun iruditzen langabezia dagoen baten bat kontratatzeke aukera galdu genezakenik.

Honen harira, aipatu beharko genuke, joan zen uztailako datuekin, herrian 20 lagun daudela ofizialki langabezia, Lanbiden izena emanda dutenak. Beraz, egoera kezagarria da. Horrenbestez, esanik gabe doa, sortu daiteken beste edozein aukera ere berdin aprobeztatzen saiatuko gara.

KONPOST-GAILUEN EZARPENA

Datozeen asteetan hasiko dira Tolosaldeako Zabor Mankomunitateko teknikariak zuen etxeetara deitzen eta Alkizara etortzen. Hondakin organikoa auto-konpostajearen bidez norberak tratatu ahal izateko baliabideak, instrukzioak eta formazio zehatza ematera etorriko zaizkigu.

Aurreko *Udal Info*-n (2013ko maiatzaren 10ean) esaten genuen bezala, Mankomunitateari Udaletik etxean zerrenda bat eta telefono zenbakiak pasatu dizkiogu. Dena dela, udaletxean dauzkagun telefono zenbakiak gehienetan etxeko fijoak dira eta eguneratu gabe daude. Beraz, guztioi eskatzen dizuegu **udaletxera deitu eta etxe bakoitzeko zeinekin eta zein telefono zenbakitan kontaktatzea nahiko zenuten esatea (agian mugikorra).**

Bitartean, behar bereziak dituzten egoerak aztertzen ari gara. Dagoeneko Perualdean eta Etxaburuan pisuetan bizi direnekin hitz egin dugu beraien konpost-gailuak non eta nola jarri ditzazkegun ikusteko. Plazako pisuetan bizi direnekin eta jantoki zerbitzua ematen dutenekin berdin egingo dugu.

Gai honi buruz eta berziklapena sustatzeko ekimenei buruz hurrengo asteetan informazioa edo argibideak zabaltzen jarraituko dugu.

Ondo izan